



MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez



**Iñaki Martínez
de Luna**




40

MANUEL LEKUONA Sarria
Premio MANUEL LEKUONA



2023



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

Egilea: Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arriba



Remigio Mendibururen brontzeko eskultura

MARTÍNEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBA, Iñaki

Iñaki Martínez de Luna / Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arriba. - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2024. - 48 or. : ir. ; 21 cm. - (Manuel Lekuona Saria; 40). - Testuak euskaraz. - Manuel Lekuona Saria 2023.

ISBN: 978-84-8419-311-1

ISBN: 978-84-8419-312-8 (online)

1. Iñaki Martínez de Luna – biografia 2. Bibliografia – Iñaki Martínez de Luna
I. Eusko Ikaskuntza II. Saila III. Izenb.

Azaleko argazkia: Itziar Ugartemendia

Erakunde hauen laguntzarekin: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurilaritza eta Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministeritza

EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES
Bergara, 19 - 20005 Donostia
www.eusko-ikaskuntza.eus - ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus

ISBN: 978-84-8419-311-1

L.G. D 0083-2024

Maketazioa, inprimaketa eta koadernaketa: Michelena artes gráficas (Astigarraga)

Datu biografikoak	5
Une gogoangarriak	21
Bibliografia	37



Datu biografikoak

Bi pasio

Bi pasio handi ditut bizitzan. Handiena, emaztearengana dudana. Nire bigarren pasioa emazteak eta semeek ere partekatzan dute: euskararena. Bi-biek eman didate niri dezente gehiago, nik haiei bueltatu diedana baino.

Sarrera

Bizitzak gogoan utzitako arrastoa luzea izaten da. Gazi-gozoa, tarteka. Baina, oroitzapena selektibokoa eta, askotan, denborak moldatua.

Jarraian aipatuko ditudanak ez dira, seguru asko, nire bizitzaren pasarterik garrantzitsuenak. Baina bai, ordea, bizitzaren sasoi honetan burura etorri zaizkidanak.

Maila pertsonalean, adibidez, leku handia eskaini beharko nioke nire familiari, gurasoengandik hasita. Harro-harro egongo lirateke semea Manuel Lekuona Sarirako izendatua izan dela jakitean. Zoritxarrez, badira urte batzuk biak joan zirela. Nire guraso apal eta langileak!

Egungo familiarekin jarraituz, nire emaztea eta bi semeak ere asko poztu dira, etxez kanpo sarri-sarritan igarotako denborak eta egindako lanak gjarztearen aldetik aitortza jaso dutela ikusita. Susmoa dut, nire bizitzan duten tamainako garrantzia ez diedala aitortzen kontakizun honetan. Barka dezatela!

Ikuspegi sozialetik, bestalde, nire bizitzaren hainbat arlo garrantzitsu ere aipatu gabe geldituko zait. Nahi gabe, beti ere.

Azkenik abisatu behar dut, kontakizun honetan izen propiorik ez dudala aipatuko, injustu baino injustuagoa izan baitaiteke nire ibilbidean hain garrantzitsuak izan diren pertsona batzuk ahaztuta uztea. Nahiago dut itxuraz esker txarreko gelditzea, izan ditudan bidaide jator eta baliotsu batzuk nahi gabe diskriminatzea baino.

Ume baten aurkikuntza

Aitarekin igande goiz batean Vitoria-ko kaleetatik paseoan, nire galdera bat:

—*¿En que está escrito esto?*

—*En vascuence, lo que se habla en Vizcaya y Guipúzcoa.*

Euskararen berri izan nuen lehenengo aldia izan zen, kaleetan abioneta batek barreiatutako papertxoetan idatzitakoaren bitartez. Edukiaz ez naiz gogoratzen, baina hizkuntzaz bai. Aurkikuntza hori XX. mendeko 50eko hamarkadaren erdialdean egin nuen; frankismo bete-betean, gaurko Vitoria-Gasteiz orduan Vitoria baino ez zenean. Gasteiz ez zen existitzen; ez izenez, ez izatez.

Zazpigarren alaba

Gurasoak eta beren arbasoak arabar peto-petoak izan dira. Beraien abizenak eta jaiokak izan ziren Kuartango eta Zuia bailaretako toponimoak horren lekuko argiak dira. Garbia da euskarak eskualde horietako toponimian utzitako marka, baina hizkuntza horren egjaztapena lo zegoen arabar gehienengan; baita nire familian ere: *lo que se habla en Vizcaya y Guipúzcoa*.

Álava¹ bazter zegoen, eta Gorka Knörr-en galderak bazuen funtsa sendoa: *Araba, oi Araba! zu ote zaren aitaren zazpigarren alaba?*²

1. Arestian Gasteizi buruz esan denak berdin-berdin balio du garai hartako Arabako eskualde askotarako.

2. <https://www.youtube.com/watch?v=82wbAEGcS-U&t=36s> (Gabi de la Maza-ren bertsioa).

Gezi-kolpe bat Katalunian

Urte batzuk geroago, hogeigarren mendearen hirurogeiko hamarkadaren hasiera-hasieran, Katalunian izan nintzen udaleku batean izandako gertakaria:

—*Ah, eres vasco y no sabes vascuence?*

—*Bueno, es que en Vitoria no se habla...*

—*Pero, algo, algo sabrás... Dí algo!*

—*Txakurra kanpora! Neska polita!*

Horrela piztu zitzaidan, euskal izatearen marka ongi betetze aldera, euskara jakiteko nire grina. Hamabi urteko mutiko hari gezi hura bihotzean iltzatu zitzaion betiko.


Hizkuntza- eta politika-migrazioak

Hamasei bat urte nituela, beste ikaskide bat eta biok hasi ginen euskara gure kasa ikasten, ikastetxeko jesuita batek utzitako gramatika baten laguntzaz.

Hori nahikoa ez, noski, eta hurrengo urtean erabaki nuen euskara ikasteko hizkuntza hitz egiten zen herri batera joan behar nuela. Estibalizko Santutegiko aita beneditar batek lagundu zidan Lazkaoko lantegi batean lana aurkitzen, eta gauean euskarazko eskolak beraien komentuan jasotzeko aukera eskaini ere. Arestian aipatutako jesuitaren kasuan bezala, fraide bat, beste behin ere, euskararen alde erabat konprometituta.

Aldi berean, bertako familia batek ostatu eskaini zidan haiekin bizitzen gelditzeko eta bizikidetzaren bitartez euskarara ere hurbiltzeko. Inoiz ez diet behar bezala eskertu keinu eskuzabal hura; barkatu!

Garai nahasiak ziren, Burgosko Epaiketa tartean, eta ohikoak ziren frankismoaren aurkako mobilizazioak, bilera klandestinoak, manifestazio erreprimituak, propaganda banatzea eta abar. Giroa bor-bor zegoen, eta hemeretzi urte bete berriak zituen gazte



kontzientziadun batentzat ezinezkoa zen dinamika hartatik kanpo gelditzea.

Urtebete hantxe eman ondoren, lana halabeharrez utzi behar izan nuen, ohartarazita, han jarraituz gero, guardia zibilaren aurrean ni salatua izateko puntu asko nuela. Gasteizera bueltatu nintzen, euskarazko oinarri xumea bezain baliotsua eskuratuta.

Dantza-taldea baino gehiago

Lagun batek (euskara gure kasa ikasten nirekin hasitako bera) euskal dantza talde batean sartzeraz animatu ninduen; Gasteizko udalaren ardurapeko taldea zen: Txirinbil izenekoa, hain zuzen. Hasi eta bertan gustura baino gusturago sentitu nintzen; giro gehienbat erdaldun baina euskaltzale hark erabat harrapatuta.

Datzen ikasi eta dantzatzen hasi ez ezik, garai hartan halako taldeen ekimenak ez ziren inondik inora euskal folklorera mugatzen. Frankismoak debekatutako beste hainbat arlo soziopolitiko ere giro horietan egosten ziren eta, bereziki, euskal identitateari lotutakoak. Euskaltasunaren aldeko klandestinitate giro betean biziginen.

Giro horretan, Gasteizera etorri behar zuen Frankoren ministro baten aurrean dantzatzea agindu ziguten udaletxetik, baina guk ezetz! Ministroaren aurrean jarduteari gure uko egiteak, udalaren menpekotasunetik askatu eta geure dantza-taldea osatzera bideratu gintuen. Talde berria legeztauzeko gu geuzteegiak ginen, eta hogeita bat urte beteak zituzten lagun batzuk bilatu behar izan genituen dantza talde berria formalki erregistratzeko: Lantzale bataiatu genuen taldea. Eszenatoki berri horretan, erantzukizunak, harremanak, kudeaketa eta bestelako ardura guztiak guk geuk, gazteok, gure gain hartu genituen. Dantza-eskola ez ezik, norberaren bizitzaren lema erabiltzen ikasteko ere eskola egokia.

Lagun-kuadrilla ere bai

Dantza-talde hura bera eduki askotarikoa zen eta ez munta gutxikoa, non mendizaletasuna eta beste bizitza-praktika ugari ere bideratzen ziren; ez bakarrik folklorekoak edota kutsu politikokoak. Horrezaz gain, lagun-kuadrilla mistoa ere bazen; ederra! Gure adin bereko beste ezagun batzuen inbidia. Beraz, bikote berrien sorlekua ere bai, eta hortxe ezagutu nuen nire emaztea.

Bizitzaren beste arlo askotan esperimentatzeko ere aukera ezin hobea izan zen *Lantzale* dantza-taldea, eta garai hartako lagun-kuadrilla haren muinak oraindik bizirik dirau, gaur egun ere, izen bera duen elkarte gisa bilduta.

Euskararen katakonbak

Kristautasunaren hasieran fededunen antzera, Gasteizen eta Arabako eskualde gehienetan, euskaldunak ere katakonbetan babestuta. Oasi jakin batzuetatik at, basamortu lehorra.

Euskarak ez zuen leku handirik egunerokoan, lagun eta hur-bileko ezagunen artean hitzun osoa zenik (ia) ez baitzegoen. Euskaraz jardutearen ordez, ohikoagoa zein agerikoagoa zen hizkuntza horrekiko begikotasuna. Nahi eta ezin, nolabait. Behin baino gehiagotan entzun nuen horren lekuko den adierazpen argigarri bat, euskaldun peto bati buruz esandakoa: *¡Qué suerte, casi no sabe castellano!* Euskarazko elebakartasuna erabat idealizatuta zegoen giro batzuetan; mitifikatuta erdaldun euskaltzale batzuen begietan.

Hala ere, desegokia litzateke beren gordeleketan bizirauten zuten euskaldun euskaltzaleak ahaztuta uztea. Errepresio politikoa bigundu ahala, hizkuntza hori erabili eta zabalitzen zuten gune-txoak gero eta agerikoagoak ziren; baita aktiboagoak ere. Horiekin batera, erdaldunak izanik ere, ikastolen eta euskararentzat beste-lako bilgune batzuen sorreran parte hartu zuten euskaltzaleei ere aitortza egin behar zaie. Halakoen bitartez abiatu zen euskararen gaur egungo loraldia Araban.

Jauzia lan mundutik soziologiara

Jesuitek kudeatutako ikastetxean ikuspuntu identitario eta etiko baliotsuez blaitzeko aukera ireki zidaten; oro har, euskaltasunaren, langileriaren eta justizia sozialaren inguruko kontzientzia eta ardura areagotu zizkiguten. Lanbide heziketako ikasketak bukatu orduko, banuen barneratuta halako gaiekiko interes eta kezka maila nabarmena. Hartara, lau bat urte beste hainbeste enpre-setako erdi mailako ardura teknikotan eman eta gero, soziologia ikasteko harra sartu zitzaidan.

Soziologiara jauzi egin ahal izateko lagun batzuen esperientzia hurbilak ere lagundu ninduen, neurri handian. Izan ere, euskal kontzientzia bor-bor zegoen Gasteizko girotxoetako bi lagunak Deustu Unibertsitatean soziologia ari ziren ikasten. Haiek eman zidaten ikasketen berri eta lagundu ziguten bizimodua Bilbon bideratzen (lana, etxea...). Abentura kutsua zeukan urrats hori egiterakoan emaztea ni bezain animoso aritu zen. Ezkondu berriak ginen eta, Gasteizko gure lanpostuak biok utzita, esperientzia berri batera salto egin genuen. Bilbora joan eta, hantxe bizimodu berriari ekin genion, bost urtez: emaztea lanean eta ni gehien bat soziologia ikasten; biok oso gustura.

Askotan pentsatu dut emazteak ere soziologia (ia-ia) egin zuela, eta matrikulatu gabe gainera! Izan ere, ikaskideen arteko eskolaz kanpoko harremanetan bera ere bat gehiago zen taldean. Marokora zortzi ikaskideok eta berak egindako opor-bidaian, adibidez.

Ikasleak euskaraz irakasle

Euskarak leku garrantzitsua izan zuen nire bizitzaren pasarte horretan ere. Hasiera-hasieratik erabaki nuen euskaldunak ziren ikaskideekin euskara hutsez hitz egitea; saretxo polita ehundu genuen, baina gehiengo nabarmena osatzen zuten erdaldunekin harremanik eten gabe.

Ikaskide erdaldunen artean ere baziren euskaltzaleak; gure hizkuntza ikasteko gogo handiak zituztenak ere bai. Ikaskide euskaldunok, euskarak gure premia bazuela jakitun, gure hizkuntza

erdaldunei irakasteko proposamena bultzatu genuen. Baina, ez bazterreko ekimen gisa, ez, baizik eta eskola ordutegi ofizialaren baitan txertatuta. Errektorearekin bildu ginen eta, bera ere euskalduna eta euskaltzalea izanik, bat egin zuen gure eskaerarekin. Horrela, ordutegia moldatu eta horren erdi-erdian euskarazko eskolak eskaini genizkien hizkuntza hori ikasi nahi zuten ikaskide erdaldunei. Irakasleak gu geu ginen, ikaskide euskaldunok.

Ez zen gure ahalegina horrekin bukatu. Urte pare bat geroago, karrerako lehen mailan ari ziren ikasle euskaldunei ikasgai bat euskaraz eman genien bosgarren ikasturteko batzuek; betiere asignatura erdaraz ematen zuten irakaslearen onarpen zein laguntzarekin. Ikasle euskaldunak, euskaraz irakasle berriz ere.

Udako Euskal Unibertsitatea, UEU mugarri


Ikaskide euskaldunon arteko batzuk hasi ginen Iruñera joaten oporraldiaren hasieran, sortu berria zen Udako Euskal Unibertsitatera; UEUra, hain zuzen. Hor ezagutu nituen euskararen orduko erreferente nagusiak, handik igarotzen baiziren euskal munduan NOR ziren gehien-gehienak.

Eduki unibertsitarioa zuten ur berri horietan murgilduz, hantxe ehuntzen ziren euskaltzaleon arteko harreman sare berriak eta, nola ez, ilusio berriak pizten ziren. Ikasitakoak bezainbeste balio zuten bizitakoak... edo agian gehiago azken honek.

Horko giro paregabearen gure grina zein konpromiso euskaltzaleak areagotzen ziren. Egun eta gau trinko horietan birkargatzen genuen euskaltzaleatasunaren bateria, eta etxeratzen ginen burua zein bihotza asmoz eta gogoz gainezka.

Gasteizera itzultzea

Gasteizera itzulita, soziologiako doktoradutza egiten hasi nintzen eta,aldi berean, euskarazko eskolak AEKn ordu batzuk ematen. Urte bakarrez izan nintzen irakasle, baina bizipena beti oso aberasgarria.



Abiatu berria zen Eusko Jaurlaritzak langileak kontratatzeko deialdia ireki zuen eta, ate hori baliatuz, lanpostu bat lortu nuen erakunde horretan. Horretarako ere, euskara helduleku ederra izan zen, aukeraketa prozesuan gelditu ginen bi partehartzaileetatik, soilik nik nenkielako euskara. Horrek ireki zidan estatistika zerbitzuan teknikari izateko aukera, nire alde egin zuen arduradun euskaltzaleari esker. Geroago, lagun handiak bihurtu ginen. Goian bego!

Hizkuntza ezagutza hori, hortaz, erabakigarria izan zen hautaketan. Horrexegatik ere, ondoren, zenbait operazio estatistikotan Gipuzkoako ardura esleitu zidaten, beste teknikari gehienak erdaldun hutsak zirelako. Euskarak markatu zuen nire bidea lan hartan ere, eta zorionez. Gipuzkoan barna aurrera eta atzera, aldez aurretik Lazkaon izandako eskarmentu batzuk berriz bizitzeko aukera polita izan nuen une hartan; baina betiere ikuspegi profesionalagoa tarteko.

Era berean, eskola ederra izan zen Eusko Jaurlaritzaren ordezkari tekniko gisa Gipuzkoako Hauteskunde Batzordean parte hartzea ere. Imajina daitekeenez, han euskararen arrastorik ez, baina judikaturan zer-nolako kezkak eta giroak nagusitzen ziren ikusteko parada ederra izan zen hura. Uste argi hau atera nuen bilera horietatik: irizpide juridikoak, interpretatzen dituenaren eskutan daude. Aukera paregabea izan zen demokraziaren hirugarren hanka zerbait ezagutzeko; Soziologia ikasketetan jorratu ez nuen ezagutza mota garrantzitsua.

Hizkuntza sozializazioa

Emazteak eta biok osatutako bikotea familia bihurtu zen orduan. Bi seme etorri zitzaizkigun gure arteko harremana osatzera, eta horrekin batera poz handiak zein ardura berriak ere iritsi ziren. Ongi etorriak!

Lehen semea nire guraso erdaldunek zaindu zuten gure lanaldian, umeak hiru urte izan arte. Harekin partekatutako denboran, guk beti euskaraz egiten genion eta berak, hizketan hasi bezain pronto, beti erdaraz erantzun. Haurtzaindegian euskaraz hasi eta

berehala aldatu zuen hizkuntzaz etxean. Bigarren semearen zaintza pertsona euskaldun baten eskuetan jarri genuen eta umeak, gurekin ere, beti euskaraz egiten zuen. Ondorioa bistan gelditu zen: Gasteiz nagusiki erdalduna izan arren, bost bat urte bete arte gure seme hori ez zen gaztelaniaz batere ondo moldatzen.

Begi bistan gelditu ziren seme bakoitzak beren hizkuntza-sozializazioan izandako ibilbide zein emaitza ezberdinak. Gaur egun euskaldun ahaldunduak dira, bi-biak.

Oporrak familian

Nire bizitzan dena ez da lana izan eta opor egunek ere tarte polita bete dute. Semeak pixka bat hazi bezain pronto hasi ginen Europan barna bidaiatzen, gehienetan gertuko laguna zen beste familia batekin.

Askotan Alpeetako mendikatearen inguruan: Frantzia, Italia, Suitza, Austria..., eta ia beti kanpin-dendan. Denon seme-alabek ume izateari utzi ziotenean, bidai luzetxoagoak egiteari ekin genion: Txekiar Errepublika, Britainia Handia, Irlanda...


Natura eta kultura nahasten genituen; mendiak, hondartzak, piszinak, museoak, elizak, herriak eta hiriak gozatzen genituen.

Zortzi bidaiariok osatutako talde hartan bizikidetza erraza zen, giroa hurbila eta konfiantzazkoa, interesak eta ardurak partekatuak... A ze oroitzapen ederrak!

Soziologiaren eskutik soziolinguistikara

Urte batzuen ondoren eduki estatistikoetatik soziologikoetara igaro nintzen nire lanbidean, Eusko Jaurlaritzan bertan. Horrela izan nuen euskararen egoera soziolinguistikoaz ikasten eta ikeritzen hasteko lehenbiziko aukera.

Lantokian euskararen egoera ezagutzeko ikerlan bat egiteko mandatua jaso genuen. Gaiari nola heldu jakin ez eta, beste



lankide bat eta biok Kataluniara joan ginen, antzeko gaiez arduratzen zen erakundera galdetzeraz. Hango lana eredu hatuz, antzeko ikerlan bat osatu genuen gure hizkuntzaz eta euskara zuzendariari poz-pozik entregatu. Ezusteko ederra hartu genuen: lana ongi eginda zegoen, baina ez zen zuzendariak nahi eta espero zuena; berak beste zer edo zer ezberdin zeukan buruan. Auskalo zer!

Laster agertu ziren laguntza teknikoren eskaerak euskararen egoeraz gehiago aztertu eta sakondu ahal izateko. Gustura murgildu nintzen niretzat ere berriak ziren arduraz horietan. Pirinioen bi aldeetako eragileekin lankidetzan, diseinuan lagundu nuen 1994an kaleratu zen lehenengo inkesta soziolinguistikoko hartan, *Euskararen jarraipena*³ izenekoak, hain zuzen, zeinetan 5.000 lagun baino gehiagok parte hartu zuten.

Aitzindaria izan zen Euskal Herri osoa aintzat hartu zuen inkesta hura. Haren harira, zenbait aurkezpen ere burutu zen, oraindik berriak bezain ezezagunak ziren datu soziolinguistikoez euskaltzaileek zuten jakin mina asetzeko. Gerora, halako edukiak ohikoa-goak ari dira izaten, zorionez.

Euskararen munduan murgiltzea

Jendaurrean egindako saio horietako baten harira heldu zitzaidan *BAT Soziolinguistika* aldizkarira biltzeko gonbidapena; zehazki, argitalpen horren batzordeko kide izateko. Hori pauso garrantzitsua izan zen niretzat, ordura arte nigandik urruti zegoen herri-euskalgintzara hurbildu eta bertako zenbait eragile ezagutzeko.

Laster etorri zen ur sakonagoetan murgiltzeko erronka. Izan ere, arestian esandako argitalpena umezurtz gelditu zen, bera sortu eta bideratzen zuen *Euskal Kulturaren Batzarrea*⁴ 1999ko otsailean desegin zen eta. Aldizkaria linbo horretatik ateratzeko elkarte berri bat sortzea erabaki genuen. Tartean beste zenbait pauso eman eta gero, horrela sortu zen *Soziolinguistika Klusterra*

3. Aurkibide orokorra (euskadi.eus).

4. https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskal_Kulturaren_Batzarreak

eta, ardurak banatzerakoan, erakunde berri horren lehenengo lehendakaria izatea suertatu zitzaidan. Beti egon naiz horrezaz harro-harro, batez ere elkarte horrek geroztik egin duen bide emankorra eta azken urteotan lortu duen erreferentzialtasuna gogoan. Hau guztia ez da nire meritua izan, inondik inora, baina lagundu izan nuen lehen harria jartzen. Gero etorri dira erakunde horretan egindako bestelako lanak, ikerketak, jardunaldiak eta hartutako beste zenbait ardura, ahaztuta utzi gabe *Bat Soziolinguistika* aldizkariko zuzendaritza.

Erakunde horretan urte luzez parte hartu dudanez eta bertan lagun artean sentitzen naizenez, gaur egun ere barru-barrutik bizi-tzen ditut bere jardunak eta lorpenak.

Unibertsitatetik gonbitea


Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle izateko proposamena luzatu zidaten Soziologia sailetik, sortu berria zen soziologia lizentziaturan ikerketa-metodologia eta teknikak irakasteko. Horrela, 1990 urtean zeregin horretan hasi nintzen, gerora eta 2015 arte, hasierako gaia horretan ez ezik, beste zenbaitetan ere irakaslea izanik, lizentziatura zein doktoradutza ikasketetan.

Euskara lekutxoa hasi zen hartzen pixkanaka, eta eskolak emateko behar beste irakasle euskaldunik ez zegoen. Erdara hutsean ziren ikasketa horietan, ikasle euskaldunei beren hizkuntza horretan onartzen nizkien ikas lanak.

Urte batzuk geroago, euskarazko adarra ere ireki zen. Aldaketa horretan anekdota bitxia gertatu zitzaidan: zenbait urte eskolak euskaraz ematen igaro eta gero, proba bat gainditu behar izan nuen hizkuntza horretan gaituta nengoela agerian uzteko; nahita nahi ez bete beharreko formalitateak.

Hizkuntza soziologia espezialitatea

EHUko ikasketa planen aldaketa baten eskutik iritsi zen aukera hizkuntza-soziologiari dagozkion gaiak, espezialitate bezala,



lizentziaturako azken urtean txertatzeko. Hori baliatuz, laupabost gaiz osatutako hautazko ibilbidea prestatu eta eskaini genien ikaslegoari, hizkuntz gutxituen egoera ulertzeko eta haiek biziberritze bidean jartzeko egokiak zirenak.

Baina, abiapuntua ez zen erraza izan, ez. Azken ikasturterako ikasleei eskaintzen zitzaizkien aukeren artean, ez zitzaien aipatzen sortu berria zen ibilbide hura. Ardura akademiko formaletan zebiltzan batzuek ez zuten euskararekiko atxikimendu handirik. Gertutik jarraitu behar izan genuen prozesua, espezialitate hura martxan jar zedin eta, azkenean, eskaintza berritzaile hura normalizatu zen. Aukera, ondo baino hobeto aprobetxatu zuten ikasle batzuek.

Beste urrats txiki bat gehiago euskararen indarberritze bidean.

Eusko Ikaskuntzarekin engaiamendua

Urrats berri bat egiteko aukera abian jarri zuen Eusko Ikaskuntzak, Asmoz Fundazioaren bitartez, *HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa*-ren sorrerarekin. Euskararen normalkuntzan behar-beharrezkoa izaten zen ezagutza soziolinguistiko kualifikatuagoa eta sistematikoagoa izatea, eta premia horri aurre egiteko esandako ikastaroa antolatu zen. Horren bitartez, euskararen ezagutza akademikoan sakontzeko aukera areagotu zen, mota horretako gaiez ez baitzegoen eskaintza nahikorik unibertsitatean. Horrela ireki zen goi-mailako hezkuntza publikoak eta pribatuak eskaintzen ez zuten bide bat. Eta urte batzuk geroago UPV-EHU-k bere egin zuen ikastaro hori bera, graduondoko formazio gisa.

2001ean sortu genuenetik eta 2015ean utzi nuen arte, hainbat ardura izan nuen ikastaro horretan: sortzaile, antolatzailerik, irakasle eta zuzendari. Gaur egun euskalgintzan buru-belarri dabilzan profesional prestu eta ezagun asko hortik igaroak dira. Ereindako hazi hura, ederki loratu da.

Eusko Ikaskuntzan nik egindako bidea ez da horretara mugatzen. Engaiamendu pare bat, adibide gisa: 2007-2013 bitartean

Auñamendi Eusko Entziklopedia online bertsoaren zuzendaria, eta, 2018an, Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresurako antolatutako zen e5 ekimeneko talde eragileko kidea.

Euskalgintza instituzionalean aholkulari

Euskararen arloko lanketa teknikoan, zientifikoan eta herri-gintzako ekintzailertzan jardutea ez ezik, beste dinamika ezberdin batean ere hartu dut parte azken urteotan: euskararen inguruko aholkularitza instituzionalean, nolabait izendatzeko.


Lehenbiziko gonbidapena Arabako Foru Aldundiak egin zidan 2008an, *Arabako Euskara Aholku Batzorde*-ra sartzeko. Ondoren, 2012an, oso antzeko proposamena Iparraldetik etorri zitzaidan, *Euskararen Erakunde Publiko / Office Publique pour la Langue Basque*-tik. Hortik gutxira, 2013an, EAEko *Euskara Aholku Batzordean* ere hasi nintzen, eta horren baitan, 2020an, *Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren* (ESEP) azpi-batzordeko zuzendaritza nire gain hartu nuen.

Euskararen indarberritzerako ezinbestekoak diren halako foreotan, nire esku dagoen ekarpena saiatzen naiz egiten. Oso gogo onez, noski.

Euskaltzain urgazle

Ur epeletako itsaso batean oporretan nintzela, iritsi zitzaidan Euskaltzaindiaren gonbidapena euskaltzain urgazlea izateko, 2015ean. Izendapena ohore handia izan da niretzat; are handiagoa euskaratik urruti jaiotakoa izanik.

2017an Sustapen Batzordeko kide bihurtu nintzen, eta ardura horretan modu xumean lagundu dut. 2023an, Arabako kide batzuek aletxo berri bat gehitu nahi izan diegu akademiaren ekarpenei, *Euskararen Biziberritzea Araban* (EBA) egitasmoa sortuz. Ekimen horrek helburu argia du: gure lurralde historikoan euskara izaten ari den bultzada dokumentatu, aztertu eta, azkenik, emaitzak gizartean zabaldu.



Erabilgarritasuna, beraz, bikoitza da, akademikoa eta hezitzailea. Izan ere, gaur egungo arabarrek eta, bereziki, gazteenek ez dute ezagutzen euskararen alde egin den lana. Horregatik, jakinarazi nahi zaie nolakoa zen egoera duela mende erdi bat, eta nolako aurrerapausoa egin den garai hartatik gaur arte. Euskaltzaindiaren egitasmo hori, beraz, lagungarria izan daiteke Arabako belaunaldi berriak euskaratik gertuago senti daitezen.

Euskaratik eleaniztasunera

Azken urteotan euskararekiko ardurak munduko eleaniztasunaren zaintzara bideratu nau. 2017an, Garabide elkartearen hasi nintzen laguntzen, eta 2019tik lehendakari gisa ari naiz.

Azken buruan, munduko hizkuntza-komunitate gutxitu guztiak galdi berean gaude, edo oso-oso antzekoan. Izan ere, halako hizkuntzek pairatzen duten egoeren abiapuntua antzekoa izaten da: ekonomiak, politikak edo kolonialismoak eraginda. Gaur egun, globalizazioa gehitu behar da.

Komunitate horiek galtzaile edota meneko egoeran egon direnez, beraien hizkuntzek prestigio edota balio soziala galdu dute eta, askotan, debeku eta jazarpena sufritu dituzte.

Halako hizkuntzen biziberritzeko aukerak eta neurriak ere denontzat oso antzekoak dira. Horregatik, elkarlana denontzat mesedegarria da, euskara barne.

Zutabe nagusia irmo

Urteak joan urteak etorri, nire bizitzari zentzua eman dion euskarak presente jarraitzen du, niregan, emaztearengan eta semeengana. Zorionekoa ni!

Une gogoangarriak



Argazkiak: Familiaren artxiboa.



1968. Lantzale dantza-taldeko kuadrilla, Araia herrian.



1970. Andregaiarekin mendian.



1970. Lantzale dantza-taldea, Zalduondo herrian.



1970. Gorbeiaiko Mairuelegorreta leize-zuloan ezpata-dantzan aritu ondoren.



1973. Lantzale dantza-taldea emanaldiaren ondoren, Untza herrian.



1975. Gure ezkontzaren zeremoniatik irtetea, Oroko Andre Mariaren Santutegian.



1978. Emaztea eta bion arteko solasalditxo.



1986. Semeekin Segoviako basoetan.



1990. Familia oporretan, Menorcan.



1991. Aiton-amona, emaztea eta semeak pasean, Oroko Santutegian.



1992. Familiaren oporraldia, Venezian.



1992. Igande-pasa familian, Marietako Santa Marina basilizian



1992. Gure eta lagunen seme-alabak Frantziako Tourra Alpeetan jarraitzen.



1992. Familia eta lagunak turismoan, Pisan.



1992. Mendi buelta lagunekin.



1994. Familia oporretan, Austriako Alpeetan.



1994. Familia oporretan, Austrian.



1995. Euskaltzaindiari harrera Arabako Foru Aldundian.



2000. Euskal Gizartearen Egoera sari-ematea, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza.



2000. Emaztea eta biok, Kilimanjaroko tontorrean.



2004. Emaztea eta semeak Gabonetan.



2005. Euskalgintzako zenbait eragileren arteko bileratik irteteen.



2015. Jauriaritzan lan egiteari agurra.



2016. Unibertsitatean irakasteari agurra.



2017. Euskaingintzako ordezkartitza bat Euskaraldiaren itzalean.



2022. GEU elkarteko kideak Korrikan parte hartzeko prest, Gasteizen.

Bibliografia

BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK

Liburuak

- Etokizuna aurreikusten 99. Euskal herriko gaztetxoak eta euskara.* (2000). UPV/EHU ISBN: 84-607-1693-7; Universidad de Navarra. ISBN: 978-84-607-1693-8.
- Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran / Identidad y cultura vascas a comienzos del siglo XXI / Identité et culture basques au début du XXIème siècle* (2006). Donostia. Eusko Ikaskuntza.
- Euskara EAEn: gaitasuna, erabilera eta iritzia. Azterketa eta gogoetak* (2013). (liburua) Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.
- Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen Lanketa (EGOD) / Análisis de los Discursos Básicos Sobre el Euskera* (2016). Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.
- EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan (2011-2015). ARRUE proiektua* (2018). Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.
- EAEko Ikasleen Euskararen Erabilera Eskola-Giroan: 2011-2017. Arrue Proiektua* (2020). Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.

Artikuluak

- Mercado de trabajo y fuerzas sociales en Euskal Herri Sur. (1984). *PAPERS* 1 (2): 125-159.
- URTeAEuskadi y la necesidad de repensar la sociedad bilingüe. *Inguruak* 10: 99-114.
- Hizkuntzekiko motibazioen ekarpenak inguruneak ezarritako baldintzen aurrean (1996). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 18: 39-52.
- Gizarte sareak eta hizkuntzaren erabilera: euskarari eta gaztelaniari egokitutako hurbilketa (1998). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 26: 59-84.

- Gazte donostiarren hizkuntzarekiko harremanak (1998). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 27: 51-81.
- Euskararekiko motibazio sinbolikoak (1998). In Intxausti, J. (ed.) *Euskararen aldeko motibazioak. Donostiako Udako XIII. Ikastaroak* (1994), [Bilbao]: UPV-EHU, 69-136.
- Gizarte sareen metodologia hizkuntza erabilerara egokitzeko saioa (1999). *Inguruak* 23: 267-286.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2001). *Jakin* 122 (2001-1): 141-145.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2001). *Jakin* 125 (2001-3): 126-131.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2001). *Jakin* 136 (2001-4): 106-11.
- Hizkuntza plangintza unibertsitate-ikastaroa (2001). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 38: 89-95.
- Euskal herriko gaztetxoek hizkuntz egoera aztertzeke eredu orokorraren proposamena (2001). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 40: 47-68.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2002). *Jakin* 128 (2003-1): 132-137.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2002). *Jakin* 129 (2003-2): 106-111.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2002). *Jakin* 131 (2003-3): 128-133.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2002). *Jakin* 132 (2003-4): 104-109.
- Euskararen kale erabilera Araban (2002). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 43: 65-74.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2003). *Jakin* 134 (2003-1): 130-135.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2003). *Jakin* 135 (2003-2): 155-160.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2003). *Jakin* 136 (2003-3): 107-112.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2003). *Jakin* 137 (2003-4): 106-111.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2003). *Jakin* 138 (2003-5): 107-109.
- Use of the Basque Language, Key to Language Normalization (2003). *The case of Basque: Past, Present and Future*. Soziolinguistika Klusterra: 67-88.
- Euskalduntze-alfabetatzearen datuak (1985-2003). Iritzi bilketa: hurbil-keta soziolinguistikoa. *Jakin* 137 (2003-4): 31-68.
- Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak (2004). *Egokitasuna hizkuntzaren erabileran*. Mendebaldea Alkartea. Bilbao: 11-38.

- Introduction: presenting the basque case (2005). *International journal of the sociology of language* 1/174: 1-8.
- The case of Basque: From the past towards the future (2005). *International journal of the sociology of language* 174: 1-125.
- Final reflections: From the present towards the future (2005). *International journal of the sociology of language* 174: 85-105.
- Euskararen egungo erronkak EAEn: mintegiaren izaera eta emaitza nagusiak (2005). *Hermes* 16: 42-46.
- Soziologia Lizentziaturan antolatu zen Hizkuntzaren Soziologiaren Ibilbidearen berri (2006). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 61: 32-41
- HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa (2006). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 61: 85-91
- Euskararen kale-erabilera Araban: 1989-2006 (2007). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 64: 61-71.
- Nortasuna, kultura eta hizkuntza XXI. mendeko Euskal Herrian (2007). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 65: 49-61.
- Hizkuntzen ekologia (2007). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 65: 105-109.
- Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran (2007). *Hermes*. Bilbao.
- Measuring Student Language Use in the School Context (2008). *Language, culture and curriculum* 21 (1): 59-68.
- Encuestas de opinión: de la teoría a la práctica (2008). *Metodología de encuestas* 1/10: 7-25.
- Zelako euskaldunak, halako kopuruak..., edo Soziologiaren erantzuna (2009), in K. Alkorta eta E. Barrutia (arg.). *Transmisinoa eta erabile-rea*. Mendebalde Euskal Kultur Alkartea, Bilbao, 11-42.
- Framing: komunikazio-teorietatik euskararen beharizanetara (2010). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 76: 53-68.
- Gazteen kultura: beste kode batzuk, beste ohitura batzuk (2010). *Kultura* 08-09. Gasteiz. Eusko Jaurilaritza: 25-45.
- Mikel Zalbideren teoriatik tiraka. Diglosiaren purgatorioaz izeneko ponentziari emandako erantzuna (2011). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 79-80 (2011) (2-3): 207-213.
- Success-Failure Continuum of Euskara in the Basque Country (2011). *Handbook of Language and Ethnic Identity*, Vol. 2: 323-335.

- Euskararen inguruko diskurtso berria Arabarako: gogoeta eta proposamena (2011). *Euskera* 56 (3): 589-652
- Hizkuntzen ekologiaren diskurtsoa eta euskara: egungo egoera eta etorkizuneko aukerak (2012). *XVII Congreso de Estudios Vascos: Gizarte aurrerapen iraunkorren berrikuntza* (2009). Donostia. Eusko Ikaskuntza: 1491-1508.
- Análisis contextual de la revitalización del euskera en el ámbito familiar (2012). *Caplletra* 53 (Tardor 2012): 1-32.
- Hizkuntzen kale-erabilaren VI. Neurketa, 2011. E-maila nagusiak (2012). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 84, 2012 (3): 31-58.
- Egoeraren gaineko gogoetak eta norabide proposamenak (2012). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 84, 2012 (3): 121-137.
- Euskararen egoera eta bilakaera XXI. mendearen hasieran: aurrera begirako erronkak (2012). *Euskal Estatuari Bidea Zabaltzen. Herritartasuna eta Kultura*. Ipar Hegoa Fundazioa / Udako Euskal Unibertsitatea: 151-168.
- Euskara EAEko Hezkuntza Sistematan: irakurketa soziologikoa (2013). *Ikasleak Hitzun. 2011ko ARRUE proiektua*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritza. 121-134.
- EAEko ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilera aztertzen: 2011ko Arrueko azterketen aurretik eta ondoren (2013). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 86, 2013 (1): 111-124.
- Euskarak duen Framing Berri baten premia asetzeko proposamena (2013). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 86, 2013 (1): 13-83.
- Eskerrona (2013). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 86, 2013 (1): 149-157.
- Azken urteetako euskal ikerkuntza soziolinguistikoaren azterketa deskribatzailea (2013). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 87-88: 13-47.
- Orain arteko plangintzen balorazio soziolinguistikoa (2014). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 91, 2014 (2): 11-41.
- The use of Basque in model D schools in the Basque Autonomous Community. *European Journal of Applied Linguistics* vol. 2, n.º 2 (2014): 254-286.
- The Basque language: From an unknown past to a bright future (2015). *Europäisches Journal für Minderheitenfragen EJM* 8 (2015) 3/4: 225-254.

- La sociolingüística del euskera: del movimiento social a la práctica académica (2015). *Treballs de Sociolingüística Catalana* 25: 231-249.
- The contemporary flourishing of the Basque Language (2015). *Linguistic Minorities in Europe* Online, 2015. De Gruyter Mouton: 225-250.
- Arabako hiztunak XXI. mendeko eleaniztasunean / Los hablantes de Álava en el multilingüismo del siglo XXI. (2015). *Arabako hizkuntzak eta hiztunak mundu eleanitzean: jardunaldiak*. Vitoria-Gasteiz. Arabako Foru Aldundia: 75-84.
- Diskurtso multzo koherentea XXI. mendeko giltzarri (bizikidetzarena, identitatearena, berdintasunarena, aniztasunarena, erantzukizunarena, justiziarena eta errespetuarena). (2016). *Bat Soziolingüistika Aldizkaria* 98, 2016 (1): 39-56.
- Euskararen transmisioa eta gaitasuna, eta aurrera begirako erronkak (2016). *Bat Soziolingüistika Aldizkaria* 99, 2016 (2): 21-79.
- Akademia eta hizkuntza-politika (2016). *Bat Soziolingüistika Aldizkaria* 101, 2016 (4): 53-67.
- The Basque language: From an unknown past to a bright future (2016). *Europäisches Journal für Minderheitenfragen EJM* 3-4, 2016: 225-254
- Hizkuntza-estrategia birpentsatuz (2018). *Hermes* 60: 68-70.
- Euskararen biziberritzea, eleaniztasunaren garaiko erronka (2018). *Bat Soziolingüistika Aldizkaria* 106, 2018 (1): 47-64.
- Euskalgintzaren nondik norakoak: gogoeta bat (2019). *Bat Soziolingüistika Aldizkaria* 112 (3): 11-34.
- Lankidetzaren ikuspegi holistikoa (2020). *Bat Soziolingüistika Aldizkaria* 114, 2020 (1): 11-23.
- Hizkuntza-mudantza EAEko ikasleengan (2020). *Bat Soziolingüistika Aldizkaria* 114, 2020 (1): 115-156.
- The contemporary flourishing of the Basque Language (2020). *Linguistic Minorities in Europe* Online, 2020. De Gruyter Mouton.
- Zer erakusten du adinak kale-erabileran? (2022). *Bat Soziolingüistika Aldizkaria* 125 (4): 89-113.
- Language Proficiency and Language Use in Basque as a First or Second Language (2023). *The minority language as a second language: challenges and achievements*. Routledge: Chapter 7: 134-158.

Ikus-entzunezkoak eta online erreferentziak

Euskonews, 506 zbk. (2009). https://www.euskonews.eus/0506zbk/elkar_eu.html

Euskadi.eus: Entrevista a Iñaki Martínez de Luna (2011). Entrevista a Iñaki Martínez de Luna - Gobierno Vasco - Euskadi.eus

Gazteen Euskal Behatokia (2011). Microsoft Word - elkarrizketa_e.doc (euskadi.eus)

Eusko Ikaskuntza. Solasaldiak (2013). Iñaki Martínez de Luna. Soziolinguista: Garaia iritsi zaigu kuotak ezartzeko euskararekin (eusko-ikaskuntza.eus)

EITB.COM: 2039an euskaldunak 1.200.000 izan gaitzke (2014). <https://youtu.be/cuL5w5UDZQ>

EITB: Alkateak aukeratzeko sistema aldatu dezake Alderdi Popularrak (2014). <https://youtu.be/OEfupjpkzcQ>

Ahotsak.eus: Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea (2015). Martínez de Luna Perez de Arriba, Iñaki - Ahotsak.eus

HABE (2019). Elkarrizketa. Iñaki Martínez de Luna (euskadi.eus)

GALDE: Entrevista (2019). <https://www.galde.eu/es/entrevista-a-inaki-martinez-de-luna/>

Eusko Ikaskuntza (2019). Iñaki Martínez de Luna, Garabideko lehendakari (eusko-ikaskuntza.eus)


DEIA. Sociedad (2022). <https://www.deia.eus/actualidad/sociedad/2013/08/04/inaki-martinez-luna-euskera-lengua-5311840.html>

EuskAraba (2022). Iñaki Martínez de Luna: “Hizkuntzaren zailtasunean oinarritutako epaiak ez du oinarri zientifikorik eta demokratikoki erakitako marko juridikoaren kontra doa” - Arabako Euskara Zerbitzuak (euskaraba.eus)

DEIA (2022). Iñaki Martínez de Luna: “Hay reticencia en el Estado a cualquier hecho diferencial” (deia.eus)

Eusko Ikaskuntzako Solasaldiak (2023) <https://youtu.be/eQRNxSaTvbM>

EuskAraba (2023). Iñaki Martínez de Luna: “Ez nuen saria espero, baina egia da balio duela isilean eta proiektio publikorik gabe aritzen garenon lanari errekonozimendua eta bultzada emateko” - Arabako Euskara Zerbitzuak (euskaraba.eus)



ALEA (2023). <https://alea.eus/komunitatea/euskaraba/1700485877060-inaki-martinez-de-luna-soziolinguistika-manuel-lekuona-saria>


El Correo (2023). «AROA hizkuntza indarberritzeko arnas luzeko egitasmoa da» | El Correo

Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria jaso duten pertsonalitateak:

- 1983. Manuel de Lekuona
- 1984. Odón Apraiz
- 1985. P. Jorge de Riezu
- 1986. Andrés de Mañaricua y Nuere
- 1987. Justo Gárate
- 1988. Manuel Laborde
- 1989. Eugène Goyheneche
- 1990. Gerardo López de Guereñu Galarraga
- 1991. Carlos Santamaría Ansa
- 1992. Bernardo Estornés Lasa
- 1993. Francisco Salinas Quijada
- 1994. Xabier Diharce "Iratzeder"
- 1995. Adrián Celaya Ibarra
- 1996. Jorge Oteiza Embil
- 1997. Micaela Portilla Vitoria
- 1998. José María Jimeno Jurío
- 1999. Piarres Charriton
- 2000. José Miguel de Azaola Urigüen
- 2001. José Ignacio Tellechea Idígoras
- 2002. Armando Llanos Ortiz de Landaluze
- 2003. Jesus Atxa Agirre
- 2004. Jean Haritschelhar
- 2005. Elías Amézaga Urzélaga
- 2006. Menchu Gal
- 2007. Sabin Salaberrri Urzelai
- 2008. Montxo Armendáriz
- 2009. Txomin Peillen Karrikaburu
- 2010. Jose Antonio Arana Martixa
- 2011. Jose Luis Ansorena Miranda
- 2012. Soledad Silva y Verástegui
- 2014. Antxon Aguirre Sorondo
- 2015. Joan Mari Torrealdai
- 2016. Jean Louis Davant Iratzabal
- 2017. Fermín Leizaola Calvo
- 2018. Mari-Jose Azurmendi Ayerbe
- 2019. Xabier Amuriza
- 2020. Jose Ramon Etxebarria
- 2021. Jon Bagúés Erriondo
- 2022. Enkarni Genua Espinosa
- 2023. Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arriba

2023

MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA



EUSKO
IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

